

LIBURU HONETAZ

Testigutza-liburua duzu hemengo hau. Halaxe nahi du autoreak berak. Espainiako Gerra zibilaren ondorengo tunel ilun hartan erne iraun zuen eta ezkutuan jardun zuen euskal idazle zenbaiten lekukotzak gerora argitaratu eta zabaldua daude. Garai hartako lekuko apartekoa dugu Julian Alustiza ere, eta horren testigutzak balio berezia duela uste dugu.

Ikuspegi horretatik begiratuta, bi atal handi ditu liburuaren gorputz nagusiak, bata besteari ongi lotuak, nahiz eta idazkera eta egituraz guztiz ezberdinak izan.

Lehen atala olerkien sorta da, urtez urte kronologikoki ordenatuta: "Itxaropenezko Olerkiak". 45 poema jaso zituen autoreak *Idazlantxoak* bilduman, 1992an; horietako gehienak argitaratu gabeak dira –argitaraturikoen iturria bakoitzean adierazi dugu–. Horiei *Ensayo* aldizkarian argitaraturiko hamairu gaineratu dizkiegu, gehigarritzat, eta "Hasieratako olerkiak" sailean. –Oharretan *Olerkiak* liburuska aipatuko dugu maiz, gorago agerturiko bilduma zaharra adieraziz–.

Bigarren atalean, "Oroitzapenak eta testigantzak", Julian Alustizak idatzitako "testu historikoen" sortatxoak dakargu. 10 kapitulu modukotan banatu ditugu horiek, gaien arabera, eta bakoitzari bere titulua emanez. Hurbil-hurbildik bizi izandako esperientzia eta lekukotasuna eskaintzen dizkigu autoreak horietan, batez ere Arantzazuko eliza berriaren eraikuntzaren eta Oteizaren lanaren ingurukoak.

Sarrera gisa, berriz, olerkiok euren testuinguruan kokatzeko autoreak berak idatzitako *Gerraoste hartan*

arnasa bila. *Argibideak* testua, autobiografi modukoa, dakargu. Autorearen bizitzari eta olerkiei buruzko argibideak baino gehiago ere bada, ordea; “gerraoste” hartan euskal idazle eta eragile hainbatek egindako lan ezkutukoaren eta ez hain ezkutukoaren agerbidea ere bada; horien artean bereziki ‘Arantzazuko fraideek’ urte haietan euskal kulturean eta literaturan egindako lana eta emandako fruituen agiria erakustera dator Julian Alustiza.

Azkenik, eranskin modukoan edo, gorago aipatu dugun asmotako liburuko ataltxoak –kontakizun eta ateraldiak– gaineratu ditugu, “Umorezko istorioak” titulupean.

Idazkerari buruz oharra:

I. Olerkiak euren jatorrizko idazkeran utzi ditugu: a) Argitaratutakoak argitaratu ziren idazkeran; b) Aipaturiko *Olerkiak* bildumakoak bertan dauden bezala, bertako eskuzko zuzenketa eta guzti, orain arte argitaratu gabe daudenean; c) Bestelakoak autoreak egindako bildumari jarraituz; horietan galdetzekoa da batzutan, autorearen grafia zerbait aldatua eman ote duen kopia-tzaileak: ‘ñ’ eta ‘ll’ letren aurreko ‘i’ jartzean, adibidez, autorea bera euskara batuaren aurreko urte haietan zalantzan ibili zela baitirudi puntu horretan.

II. Bestelako atal eta testuak euskara batuan doaz, autoreak berak hala idatzita.

III. ‘r’ eta ‘l’ kakodunak ‘rr’ eta ‘ll’ idatzi ditugu, jakina.

Azkenik, poemek azpian dakarten data autoreak jarria da, baina hilabeteen izenak euskara batuan idatzi ditugu. Era berean, olerki batzuren buruan datozen oharrak autorearenak dira.

Argitalpenaren arduraduna